

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gu Izar, Analia, Irati eta Laia gara, **EkinLau**-ko taldekideak. Bigarren batxillergoko ikasleak Irungo Pio Baroja institutuan. Enpresa administrazio eta kudeaketako ikasgaiari, gure irakasle Idurrek erronka berezi bat proposatu zigun: proiektu bat sortzea, non enpresa bat asmastu beharko genuen, gizartean eragin positiboa izango zuen lan eginez.

Erronka horri aurre egiteko, **Bizihotz** izeneko enpresa bat sortu genuen. Gure helburua argia zen: eguneroko bizitza errazagoa, seguruagoa eta jasangarriagoa egingo lizukeen hozkailu berritzaile bat egin nahi genuen. Gure artean, genituen ideak gure artean banatu genituen eta **segurtasuna, jasangarritasuna, osasuna eta erraztasuna** ahalbidetu ahal zituen produktua sortu nahi genuela erabaki genuen. Ondorioz, etxeko aliatu berria sortu nahi genuen, zure hozkailuan jartzen den pantaila adimendunaren ideia geneukagun buruan.

Gure asmoa, Bizihotz gizartean inpaktu positiboa izatea da. Bizihotz ez da enpresa bat bakarrik; bizitza hobe baten aldeko konpromisoa da. Bizihotz aurrepauso handia izango litzateke gizartearentzat eta osasunaren munduarentzat.